

B

BARREN

TOKIKOM

“Bazkidea naiz, baina ez naute onartzen”

Kontxi Loiola



**TERRAZA HANDIA DANTZARAKO
ETA KOKTELETARAKO**



**2 suite jakuzziarekin
4 gela hidromasajearekin
Helbarrizentzat egokitutako gela**

WI-FIA doan eraikuntza osoan

**250 lagunentzako aretoa
Era guztietako ospakizunak**

**Gela bikoitza (denboraldi ertaina): 60€
Eguneko menua: 20€
Karta: 36€**




Krabelin
HOTELA-JATETXEA

**Tel: 943 202 727 - Faxe: 943 208 991
Arrate auzoa, z/g
20600 EIBAR (Gipuzkoa)**



**ESKAINNTZA ASTEBURU
ZORIONTSUA
2 gau, 2 afari eta
2 gosarirekin
2 pertsonentzat
150 € + %7 BEZ**



Agur eta ohore, gudari maitea

Euskal Herriko bazter guztietatik bezala, txoko honetatik ere besarkadarik sentikorrena hire senide eta lagunei. Hauts bihurtu haiz, bai, baina hagoen tokian hagoela ziur nagok borrokan jarraituko duala, gazte-gazterik hasi eta azken hatsa emanarazi diaten arte egin duan bezala. Eredu bat izan haiz, Jon. Eta betiko izango haugu eredu.

11hilabetetan ezkutuan mantendu haute. Baina orain bertsio ofizialarekin ere harpa jo nahi zigutek. Izenak gogoratze hutsak berotzen naik, baina bahitu, torturatu eta erail hautenak ez dituk Guda Zikinaren eta Estatu Terrorismoaren atal berri honen erantzule bakarrak, Madril zein Parisko bulego batzuetako buruak, kasu.

Deigarria duk iragan maiatzaren 15ean, hire desagerpena salatu huanean, Espainiako zein Frantziako gobernuek emandako bertsio ofiziala dela orain Anne Kayannakis Baionako fiskalburuak baztertzen dian hipotesi bakarra. Atera kontuak oraingo bertsio ofizialaren

sinesgarritasunaz.

Baina ez duk hor geratzen guztia. Igandean, hire erailketa salatu asmoz deitu huan manifan, terrorismoa goraiatu omen zuan, eta ondorioz, herriz herriko mobilizazioak debekatu zitizten. Zer apologia klase duk, bada, agur duin bat eskaini nahi izatea? Merezi duanaren aldean hutsaren hurrena. Baina ezta hori ere.

Halere egon adi lasai, adiskide maitea. Herri honen askatasun egarria eta bere preso, iheslari eta gudarietako elkartasuna eta maitasuna menperatuko dituen armadarik ez baita sortu, ezta sortuko ere.

Omenaldirik onena, Garaipena!

Jon Garate



**“Hauts bihurtu haiz, bai, baina hagoen tokian hagoela
ziur nagok borrokan jarraituko duala”**

“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**Antton
Alberdiren
Tantaka
tantaka
bloga
estreinatu
dugu!**



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net



aritzlaskurain

Sasoi onean dago Aritz Laskurain (Soraluze, 1979). Domekan sekulako partida jokatu zuen Sebastian Gonzalez (Azkaine, 1977) lagunarekin, eta binakako txapelketako finale-rako sailkatu ziren. Apirilaren 4an jokatuko dute finala, Ogetan. Bolada ona baliatuta, joko ona egiteko asmoz kantxaratuko direla esan du: “Behin finalera helduta, garbi dago irabazi egin behar dela”.

Ainara Argoitia

“Ez naiz biguna, ezta esaten duten bezain formala ere”

Loraz josi zaituzte asteburuko partidaren ostean. Gustura?

Bai, oso gustura, bai nik neuk emandako jokuarekin, eta baita Sebasekin [Sebastian Gonzalez] batera txapelketako gorengo mailara iristeagatik. Txapelketa hasieran zailtasunak izan genituen, eta kritika ugari egin zizkiguten, baina gure artean berba eginda eta bideo batzuk behin eta berriz ikusita, asmatu dugu bidea zein den, eta gustura gaude. Ez da erraza izan, baina kritikak onartu eta aurrera egin dugu.



Lehenengo lau garaipenak ordezkoen kontra lortu zenituzten, eta Olaizola eta Mendizabali tanto bakarraren aldeaz irabazita sailkatu zintzen finalerdietarako. Zuen lehiakortasuna zalantzan jarri duenik ere izan da...

Bai, denetik dago. Dena den, ordezkoen kontra irabaztea ere ez da erraza izaten,

nahiz eta prentsak ez duen sarri ondo baloratzen. Ordezkoek zer erakutsi handia izaten dute, eta batzuetan titularrek baino hobeto jokatzen dute. Ordezko sartzen den pilotaria denen miran egoten da, baina motibazio handiarekin jokatzen du. Egia da beste zenbait partidutan, beharbada, ez genuela nahi bezain ondo jardun, baina kritikak onartu ditugu eta topatu dugu irtenbidea. Olaizola eta Mendizabalen kontrakoan oso ondo jokatu genuen, adibidez, eta finalerdietako ligaxkako beste hiru partidetan ere bai. Lehen arrazoi pixkatekin asko kritikatu gintuzten, eta orain arrazoi pixkatekin asko goratzen gaituzte.

Txapelketa hasi zenean, finalerdietan sartzea jarri zenuen helburutzat. Finalera iritsita, lanak eginda daude?

Orain oso ondo jokatzen ari gara, baina maila honi eutsi behar diogu urte guztian zehar. Ez da ‘iritsi gara’ esaten dena, ‘bi-



dean gaude' baizik. Garbi dago konforma gaitzak garela. Txapelketa hastean helburu bat jartzen diogu beti geure buruari, eta nik finalerdietan sartzea jarri nion. Hala ere, nik beti izaten dut B plan bat, eta oraingoan ere banuen. Finalerdietara sailkatzeko helburua bete ez arren, gure onena emanen gero gustura geldituko nintzatekeela esan nuen, eta halaxe da. Igandean galdu izan bagenu ere, ni oso gustura egongo nintzateke, baina hori bai, behin finalera helduta, garbi dago irabazi egin behar dela. Kirolean motibazio gabe ez dago zereginik.

Presio handiko partidetan sarri behera etorri izan zara. Aurten, baina, hazita ikusi zaitugu partida erabakiorretan. Zelan prestatu zara?

Bigun xamarra izatea leporatu didate beti, baina ez dut uste egia denik. Egia da orain helduagoa naizela eta eskarmentu handiagoa dudala, eta horrenbestez, erosoago nabilela, indartsuago. Kontua da azkeneko urteotan sarri ibili naizela eskuetako arazoekin, eta horrek min handia egin didala, partidak aurrera egin ahala behera egiten nuelako, eskuko minaren ondorioz. Aspal-dian, baina, hobeto nabil, eta horrek berak indarra ematen du. Askok uste zuten eskuko arazoa barik arazo psikologikoa zela, baina oker zeuden. Nik uste dut tentsio handiko partidetan beti hazi naizela. Urmetan jokatu nituen final guztiak irabazi egin nituen, eta duela bi urteko finala, berriz, galdu, baina ez nik behera egin nuelako, aurkariak ni baino gehiago izan zirelako baizik. Ahozabalak ere ez gara izango, gerta daitekeelako finalean egun txarra izatea eta txarto jokatzea, baina nik uste itxura ona eman dezakegula.

Frontoian ez daukazu ahozabal famarik. Zure apaltasuna nabarmentzen dute hedabide guztietan.

Saiatzen naiz kantxan lasai egoten, eta juramentu askorik ez botatzen. Orain Kutxa-

ren Kiroltasun Saria ere hor dago, eta gertatu da partidari lau pilotariok zuzen jokatu eta sei puntutik lau niri ematea. Ez dakit ez ote den nire inguruan sortutako famagatik hori ere. Hala ere, nik uste dut ez naizela biguna, ezta esaten duten bezain formala ere. Harritu ere egiten naiz. Nik uste dut ez garela kanpotik ikusten gaituzten modukoak, ez onerako, ezta txarrerako ere.

Lapurdin oso estimatu omen zaituzte, neurri batean zuri esker bigarren lapurtar bat izango delako finalean. Bi lapurtar, lehengo aldiz. Zer duzu esateko?

Eskertzen dela estimatan izatea. Telebistari esker, gaur egun pilota asko jarraitzen da, eta ezker paretak indar handia hartu du Iparraldean. Polita izango da finalean bi lapurtar izatea, horrek bidea emango duelako pilota indartu eta gazte asko erakartzeko.

Binakakoan sekulako ondoen zabilza aurten. Horrek baldintzatzen du urtea?

Bai, nabarmen. Esku pilotan bi une garrantzitsu daude niretzako: binakako txapelketa eta uda. Laz hamabi hilabeteetatik hamarretan ondo ibili nintzen, baina txapelketan eta uda hasieran, eskas xamar jardun nuen, eta hori dela eta, askok iaz oso urte txarra egin nuela uste dute. Ez nuen urte txarra egin, baina maila eman behar zenean ez nuen eman, eta orain entzun egin behar. Ez dago besterik.

Eta aurrerantzean, zer? Buruz burukoan sartzeko aukerarik ikusten duzu?

Ez, ez, aurten behintzat ez. Banaka aritzeko dohai handirik ez daukat. Indarra badaukat, baina lekualdatzeetan edo atzera-aurreretan kosta egiten zait, eta aireko defentsan ere larri ibiltzen naiz. Kontuan izanda, buruz burukoan aireko defentsa barik askok erasoko jokoa dutela, larri ibiliko nintzateke. Goiko mailakoengana gerturatu ere ez naiz egiten, eta enpresarekin adostu nuen aurten ez nuela buruz burukoan jokatuko.

Laburrean...

• Atzelari bat?

Abel Barriola.

• Pilotari osoena?

Osoena esaten ez naiz ausartzen. Apur bat zehazterik banu, Titinen pentsaera esango nuke. Ez Titin bera jokuz, baina bai haren lehiarako grina hori. Gogorra da oso, eta nik uste haren aurretik beste askok hartuko dugula erretiroa.

• Frontoi bat?

Adarraga.

• Nekez ahaztuko duzun partida bat?

Asko daude, baina igandekoa beharbada.

• Amets bat?

Disfrutatzen jarraitzea, bai kantxan eta baita frontoitik kanpo ere.

• Pilotari on batek izan beharreko hiru dohai?

Disziplina, pilotarako gutxieneko gaitasuna, eta burua.

• Aurrelari moduan hasi zinen.

Orain, atzean jokatzen duzu. Aurrean edo atzean duzu nahiago? Ni umetatik aurrelari ibili nintzen beti, eta gustatu ere gehiago gustatzen zait, jokoa biziagoa delako, baina atzean jokatzeke dohai handiagoak ditut. Aurrean jokatu nahi nuen, eta saiatu nintzen, baina ezin zela jabetu nintzen, eta 20 urterekin atzera aldatu nintzen. Pozten naiz erabakia hartu izanaz, baina ez naiz damutzen aurrean saiatu izanaz.

• Dieta makrobiotikoa

Lehenengo prestatzaile fisikoak gomendatuta hasi nintzen, baina ez nuen inoiz oso-osoan jarraitu dieta hori. Saiatzen nintzen aholkuak betetzen, eta orain ere saiatzen naiz garbi jaten.

• Pilota ez den kirol bat?

Txirrindularitza.

• Nori eskainiko diozu txapela?

Jajaja. Irabazi egin behar da lehenengo. Irabaziz gero, bertan erabakiko dut zeini eskaini.

“Finalean bi lapurtar izateak pilota indartu eta gazteak erakartzeko balioko du”



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Herri solidario bati:

Elgoibarren bizi garen boliviarron kolektiboak eskerrak eman nahi dizkie elgoibartarrei domekako sutearen ondoren erakutsitako bihotz on, elkartasun eta sentsibilitateagatik, eta bereziki, sutean kaltetutako familia boliviarraren alde egindako isileko lan eskuzabalagatik. Domekako ezbehar haren ondorioz, soinean zutenarekin gelditu ziren zenbait boliviarrak, eta elgoibartar asko etorri dira laguntza eskaintzen, dela jatekoa, arropa, edota dirua eskaintzen.

Bide batez, familia horri laguntzeko aukerarik izan ez dutenez kontu korronte bat zabaldu dugu Euskadiako Kutxan. 3035-000724-0071116815. Era berean, telefono zenbaki bat ere jarri dugu, lagundu nahi duenarentzat: 675940901

Eskerrik asko.

Elgoibarren bizi diren boliviarrak ☺

Amaren umetokiaren bedeinkapena

Emakumezko guztiek euren umetokia Andre Maria Birjinaren bihotz guztiz garbiri eskaintzea proposatzen dut. Emakume ezkonduak, esaterako, zera esan diezaiokeke Mariari: "Nire gorputzeko atal hau eskaintzen dizuet; hemendik aurrera zeurea da. Han gertatzen den oro zure planen lagungarri izan dadila eta Jainkoaren borondatea bete dezala. Aurrerantzean, zuk zeuk erabakiko duzu zenbat ume sortuko diren handik. Zaindu ezazu gorputz atal hori ezpurutasun guztietatik, gaixotasun orotatik, eta zeuk egin nahi duzuna egiten utziko ez dizun gauza guztietatik. Zure umetoki paregabearen isla izan dadila. Bedeinkatu itzazu bertan bizia topatu duten guztiak, eta era

berean, bedeinkatu itzazu, aldez aurretik, nigandik sortuko diren haurrak.

Senda nazazu iraganean egin ditudan oker guztietatik, eta nire umetokian heriotzaren bat gertatu bada noizbait (dela abortu naturalagatik edo eragindakoagatik), senda itzazu horrek nigan eragindako desmasia guztiak, eta har ezazu zure umetokian nik galdu dudana gizaki txikia. Ama maittea, nirea den guztia izan dadila zurea, zuk neure egin duzun moduan zeurea zena..."

Aldaera batzuekin, baina neskato, gazte nahiz emakume ezkondu guztiek egin dezakete eskaintza hori. Bakardadean bizi den pertsona batek, edo ama izaterik ez duenak eskaintza hori egokitu egin dezake, eta eta berak isilean bizi duen martirio edo sufrikario hori gehitu. Amonek ere asko dute eskaintzeko: iragana eta ondorena.

Jakina, senarrek ere euren partea dute eskaintza horretan.

R.S. ☺

BARREneko adiskide maiteok:

Sarritan Elgoi-BARREN sentitzen dut nire pertsona osoa. Maitagarria deritzot nire-gure herriari mila eratan, eta esker onez gainezka gogoratzen zaituztet, nire elgoibartarrok. Eta zuek, BARREN aldizkari interesgarriarekin, zuekiko sentimendu horiek berritzen eta sakontzen dizkidazue. Eskerrak, bada, berriro eta eutsi goiari!

Orain, Eider Goiburuk abortuari buruz idatzi duenari erantzun nahi diot, nolabait. Arazo garrantzitsua dugu abortuaren kontua. Ondo baino hobeto aukeratu du, bada, abortuaren arazoa. Neuk ere bat egiten dut

Eiderrekin: ez nuke inola ere abortua delituaren pare hartuko. Ondo dakite hori, abortatu ondoren, pertsonalki euren egoera azaldu didatenek. Zuzen dio Eiderrek "abortatzea erabakitzen duten neskek, orokorrean, nahiko gaizki pasatzen dute". "Nahiko" baino gehiago, noski! Pairatzen duten edo dituzten baldintza pertsonal gogorrek, zigorra baino gehiago, laguntza eta maitasuna eskatzen dute. Horrek ez du kentzen, baina, argumentu okerra dela "behingoz gure gorputzaren...gara". Amaren sabelean beste gorputz bat dago. Horregatik esan dezake berak, amak, gure gorputzaren eta ez, nire gorputzaren jabe dela. Amaren sabelean beste baten gorputza dago. Nabarmena da hori. Ia aditu eta zientzialari guztiek, edo gehienek behintzat, aitortzen dute hori. Eta, gure hizkuntza maiteak ere, gure euskarak, argi eta garbi dio: Haurdun, haurra duena.

Barka nire giza kontzientziak lerro hauek maitasunez eta errespetuz idaztera bultzatu banau.

Agur, bihotzez.

Roman Garate ☺

OHARRA

Aste Santua dela-eta, datorren astean ez dugu **BARREN**ik kaleraturuko. Apirilaren 6an itzuliko gara lanera, eta hurrengo alea hilaren 9an jasoko duzue.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza, Jairo Berbel. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Miriam Garcia

Martxoaren 8an emakumeen eguna ospatu genuen mundu osoan.

Azken belaunaldietan emakumeon lan egoera eta eskubide sozialak hobetu egin direla argi dago, baina historiari –eta batez

ere historiako liburuei– begiratzen badiogu, gehienetan emakumeek euren lorpenak isilean bizi behar izan dituztela konturatuko gara. Nik omenalditxo bat egin nahi diot, hemendik, isilean lan handia egin duen emakume bati, asko miresten dudalako.

Orain dela ia laurogei urte jaio zen Anuncia, Arabako herritxo batean. Hogei urte bete aurretik itsasontzi bat hartu eta Txilera abiatu zen. Hilabete oso bat iraun zuen bidaiak. 1960 urteko Chiloé-ko itsasikarak bertan harrapatu zuen, baina bizirik irteera lortu zuen, eta beste pertsona asko ere onik ateratzen lagundu zuen. 80 eta 90 hamarkadetan, Amazoniako baso soilteza arrisku bat baino gehiago errealitate bat zenean, eta basoak biluzik gelditzear zeudenean, oihan barrenean oinez sartu zen, multinazionalei aurre egiteko eta Amazoniaren eta herri indigenen zainak babesteko.

“Urtero, amaren eguna iristen denean, denek zoriontzen dute Anuncia”

Guzti hau gau beroetan kontatzen zigun, kandela baten argipean, tortilla goxo bat jaten ari ginen bitartean.

Hogei urte baino gehiago daramatza Boliviako herritxo batean, eta denbora guzti horretan hainbat lan egin ditu: ospitalea sortu, ume ezin-duei hezkuntza eman, artisau indigenen kooperatibak bultzatu...

Urtero, amaren eguna iristen denean, herriko pertsona guztiek – umeek zein nagusiek – zoriontzen dute Anuncia (edo denek deitzen dioten bezala, *Madre Anuncia*), seme-alabarik izan ez badu ere, denen ama delako.



Eva Garcia



Merezi du, Anuncia bezala, noizbehinka beste hainbat emakume anonimo eta borrokalari gogorazteak, haien obra bikaina eta zintzoa gogoratuz, haien bizitza ixila eta ederra eskertuz.

Egunkarietan, telebistan, aldizkarietan edo zineman entzuten ditugun emakume famatuen izenak gure bizitzako emakume erreferente bakarrak bihurtu dira. Urteak joan ahala, egunero etengabe lanean ari diren arraza, kultura eta erlijio ezberdinetako emakumeen beste talde hori ahaztu egiten zaigu. Ez dute telebistako partailetan minutu bat ere betetzen. Ez dituzte gure txaloak jasotzen. Inork ez dizkigu haien izenak inoiz aipatu; anonimo, ikusezin, ukiezin eta entzunezin dira, eta horrenbestez, historian zehar hainbat emakumek egin duten lan azpimarragarria betirako ahaztuta gelditu da.

“Gizarte solidarioa lortu arte etsiko ez duten emakumeentzat doa zutabea”

Paregabeko ezaugarri edo dohaiak dituzten emakume horiek lan ixil eta apala egin dute giza eskubideen alde, beti jator jokatzuz. Horiek dira benetan bizi honetan ezinbestekoak.

Oraindik ere, egiteko bide luzea dagoela jakitun, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatu genuen orain dela bi aste. Egun horren helburua egun hau gehiago ospatu beharrik ez izatea da, eta horretarako, ez dugu ahaztu behar egunerokoan mundu osoan egiten ari diren lanen garrantzia.


Gizarte solidario, balioetsu eta gogor bat lortu arte etsiko ez duten emakumeentzat doa gaurko zutabetxo hau. Lan ixilari, omenaldi ixil bat.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



NAHIDON?

Kontxi Loiola

Elkarteak gizonen guneak izan dira historikoki. Emakumeek ez zuten bazkide izateko aukerarik, eta zenbait elkartetan, sartzea ere debekatuta zuten. Azken urteotan gauzak aldatzen hasi dira, eta emakume batzuek lortu dute elkarteetan bazkide egitea. Kontxi Loiolak, esate baterako, uste baino zailtasun gehiago izan zituen, baina azkenean lortu zuen Aiestia-San Migel auzoko Kalamua elkarteko bazkide izatea.

Ainhoa Andonegi

“Ahoa itxita nahi dituzte emakumeak San Migelgo soziedadean”

Zer dela eta erabaki zenuen Kalamua elkarteko bazkide izatea?

Egia esaten badizut, ez nuen inoiz pentsatu auzoko elkarteko bazkide izatea. Baina 2004. urtean iloba egin zuten bazkide, eta elkarteko estatutuak irakurtzeko aukera izan nuen. Ordura arte, uste nuen emakumeek ezin ginela bazkide izan, baina estatutuen arabera, 18 urte beteta edukitzea, eta auzotarra izatea edo auzoan bizi izatea nahikoa ziren bazkide egiteko. Gainera, estatutuak gaztelaniz idatzita daude, eta behin eta berriz azaltzen zen *el socio o la socia puede... el socio o la socia debe...* Baldintzak betetzen nituela ikusita, bazkide izateko eskaera egitea pentsatu nuen. Elkarteko presidentearengana jo nuen, eta bazkide izateko zer egin behar nuen galdetu nion. Gainerako bizilagunek bezalaxe, eskaera egiteko esan zidan, eta halaxe egin nuen.

Nola hartu zuten zure eskaera?

Gaizki. 22 boto izan nituen kontra; 11 alde eta bat zurian, baina niretzat hori, kontra hogeita hirugarren botoa izan zen. Banekien %100ek ez zutela aldeko botoa emango, baina hainbesteko aldea egongo zenik ez nuen uste. San Migelen emakumeek eta gizonen lan asko egiten dugu elkarrekin. Elkarlanean antolatzen ditugu jaiak eta beste hainbat ekintza, eta ez nuen erantzun hori espero. Sekulako disgustua hartu nuen.

Azalpenik eman zizuten?

Eskatu nituen, baina ez nuen erantzun garbirik jaso. “Horrela irten da”, esan zidan lehendakariak, eta batzarrean ez zutela gaia aztertu esan zidan. Baldintzak betetzen nituela esan nion, eta zerbait ez banuen betetzen, esateko eskatu nion, konpondu ahal izateko. Emakumea izateagatik baztertu ote ninduten galdetu nion, eta ez zekiela erantzun zidan. Arrazoa hori bazen, estatutuetan emakumeek bazkide izatea debekatuta dutela jartzeko esan nion, baina legez ezin zutela hori jarri erantzun zidan. Orduan, emakume izateagatik ezin nindutela baztertu esan nion.



Eskuman, Flori Ortiz de Villalba.

Emakumea izateagatik baztertu zintuztela uste duzu?

Ez. Nire kasuan ez zen emakume eta gizonen arteko kontua, baizik eta berdintasun kontua. Nire ustez kontzeptu desberdinak dira. San Migelgo soziedadean emakumea onartzen da, ahoa itxita eta eskuak zabalik baldin baditu. Lanerako eta laguntzeko, bai, baina bestela, ahoa itxita nahi dituzte emakumeak. Nik jaien antolakuntzan ere sarri eztabaidatu izan dut gizonekin, eta batek baino gehiagok pentsatuko zuen elkartean ere eztabaidatu egingo nuela.

Hala ere, aurrera egin zenuen.

Bai. Auzoko emakume talde batek eskutitz bat idatzi zion elkarteko zuzendaritzari, nirekin egin zutena ez zela bidezkoa esanez. Emakumeak eta gizonak beti elkarrekin ibili izan gara auzoan, eta lankidetzaren harreman horri eusteko pausoak eman behar zituztela jartzen zuen eskutitzean. Bigarren aldiz egin behar izan nuen eskaera. Azkenean bazkide egin ninduten, baina boto bakarreko aldearekin. 16 boto alde, eta 15 kontra. Botoa aldatu zuten bazkideei eskerrak ematen dizkiet.

“Boto bakarreko aldearekin egin ninduten bazkide. 16 boto jaso nituen alde, eta 15 kontra”

Bidea urratu duzu. Gaur egun, zenbat bazkide dira emakumeak?

Nire atzetik beste bi emakume sartu dira bazkide, eta ez dute inolako arazorik izan. Batek, botoen %99 izan zituen alde, eta besteak %100. Eta bietako bat, gainera, lehenengo urtean zuzendaritzan sartu zen. Horrek erakusten du nire kasuan arazoa ez zela emakume izatea. Ni ez naiz isiltzen, eta ez ninduten nahi elkartean. 2004an egin ninduten bazkide, baina oraindik ez naute onartzen. Sei urte daramatzat elkartean, eta ez naiz sekula zuzendaritzan egon, eta ez naiz egongo, gainera.

Zuzendaritza ez al da txandaka aldatzen?

Bazkideek lehendakaria aukeratzen dute, eta gero lehendakariak aukeratu dituzte zuzendaritzako kideak. Ni zuzendaritzan egotea nahiko lukeen lehendakari bat aukeratu beharko lukete, eta hori ez da inoiz gertatuko. Dena dela, onartu ez arren, nire ekarpenak egiten ditut. Orain dela gutxi, aurrekontuetan 3.000 euro aurrezteko proposamena egin nuen. Beste bazkide batek 1.800 euro aurrezteko plana prestatu zuen, eta hura onartu zuten. Hori bai, gero bazkide kuota igotzea erabaki zuten.

Gaur egun, zer moduz konpontzen zarete?

Moldatzen gara, baina ez lehen bezala. Hasierako bozketa hark giro txarra sortu zuen, eta eztabaida asko izan dira ordutik. Nik baserritarrekin egiten dut lan, eta beste auzoetan beti tirabirak ikusten nituen, baina gure auzoan denok ondo konpontzen ginen. Han eta hemen defendatu izan ditut auzotarrak, beti esan izan dut autentikoak garela, eta horregatik, sentitu nuen mina handiagoa izan zen.



FLORI ORTIZ DE VILLALBA:

“Nire bigarren etxea zen Karakate elkartea”

Flori Ortiz de Villalba Karakate elkarteko bazkidea da; bazkide egin duten bigarren emakumea, alegia. Ez du aparteko arazorik izan elkarteko bazkide izateko, baina laguntza apur bat behar izan du.

Senarra zen Karakateko bazkidea, eta harekin joaten zen Flori astero-astero elkartera. “Nire bigarren etxea zen Karakate elkartea”, esan du Florik. Orain dela urtebete senarra zendu zitzaion. Berak elkartera joaten jarraitu nahi zuen, baina espero ez zuten eskutitza jaso zuen etxean: elkarteko zuzendaritzak sinatutako eskutitza zen, eta senarra falta zenez, elkartetik kanpo zegoela jakinarazi zioten Floriri. “Senarra galdu berri nuen, eta sekulako desgustua hartu nuen”, adierazi du Florik. Zuzendaritzako kide guztiak ezagutzen zituen, eta beraiengana jo zuen.

Hilabete horietan elkartea bere izenean erabiltzeko aukera eskatu zuen, baina ezetz esan zioten, estatutuen arabera, hurrengo batzar nagusira arte itxaron behar zuela eta bazkide berri guztiak bezala eskaera egin ondoren, gainerako bazkideen onespena jaso beharko zuela. Martxoan zen, eta batzar orokorra urtarrilean egiten da.

Gauzak, baina, ez ziren bere horretan geratu, eta elkarteko zuzendaritzako batzuek ezohiko batzar orokorra eskatu zuten. Bazkide guztiei bidali zitzaion gutuna, eta inork ez zuen batzarra egiteko oztoporik ipini. Handik egun batzuetara jaso zuen Florik zorioneko eskutitza etxean, eta Karakateko bazkide zela jakinarazi zioten.

Hasierako desgustua pasatu ondoren, ez du Florik inolako arazorik izan. Izugarri gustatzen zaio elkartera joatea, Luis Mari senarrarekin astebururo joaten zen, eta orain, senarra falta arren, familiakoekin bazkari eta afariak egiten ditu Karakaten.

Florik esan duenaren arabera, Karakate elkartean egon diren emakumeekin ez da inoiz arazorik egon. Bere ustez, elkarteetan emakumeek bazkide izateko aukera izan beharko lukete. “Askok ez daukate semerik, eta bazkide postua alabari lagatzeko eskubidea izan beharko lukete”. Florik berak bi alaba dauzka, eta egunen batean Karakateko bazkide postua bietako bati lagatzea gustatuko litzaioke.

Hilaren 31n itxiko dute Guass diskoteka, eta Udalak eraikina bota eta aparkalekuak egingo ditu bertan

Itxiera eguneko jaietan, azken urteotan musika jartzen aritu diren guztiak izango dira

Hilaren 31n itxiko dute Guass diskoteka, Agustin Alonso jabeetako batek jakinarazi duenaren arabera. Joan zen urtetik bolo-bolo zebilen Guass-a itxiko zutela. Itxuraz, eraikinaren jabeak eta gaur egun diskoteka kudeatzen zutenak ez ziren ados jartzen, eta horrek atzeratu du diskotekaren geroaren inguruan erabaki bat hartzea. Elgoibarko Udalak eraikina eraitsi eta aparkalekuak egiteko asmoa dauka bertan, Alfredo Etxeberria alkateak jakinarazi duenez. Aparkalekuan OTA-TAO sistema jarriko dutela iragarri dute, baina ez dute zehaztu zenbat autorentzako lekua egingo duten aparkaleku berrian.

Agustin Alonso haserre agertu da Guass-a ixteko erabakiarekin. Haren esanetan, Udalak ahaleginak eta bi egin ditu diskoteka ixteko. Guass-ak hogeita hamar urte egin ditu zabalik, eta horrek Elgoibarri bizitasun handia eman diola uste du. Alonsoren esanetan, Elgoibarren zapatu gauetan ez da apenas jenderik ibiltzen, eta Guass-a ixteak tabernariei kalte handia egingo die. Era berean, herriko gazteentzako ere kaltegarri izango dela uste du, kanpora irten beharko direlako, eta horrek arriskua dakarrelako. Alonsok aurreratu du ixten duten egunerako jai berezia



prestatzen ari direla. Azken urteotan musika jartzen ibili diren guztiak parte hartuko dute jai horretan.

Sua hartu zuen etxeko familiari laguntzeko jai antolatu dute



Martxoaren 14an sua hartu zuen etxeko bizilagunei laguntzeko jai egingo dute domekan. Ermuaran-Sallobenten izango da, 10:00etatik aurrera. Joaten diren herritarrek Boliviako janari tipikoa dastatzeko aukera izango dute, 10 euroko tiketak erosita. Bi menu izango dira aukeran: pikantea (oilaskoa, arrosa eta juka), eta ohikoa (txerrikoa, entsalada eta arrosa). Tiketak erosten dituztenen artean janariz betetako otarre bat zozketatuko dute.

Aintzane Ezenarro Aralarren bozeramailearen hitzaldia

Aintzane Ezenarro Aralarren bozeramaileak hitzaldia eskainiko du hilaren 20an, Kultur Etxeko sotoan, 19:00etatik aurrera. Aralarren lan ildoak azalduko ditu, eta Patxi Lopezen gobernuaren jardunaren argazkia egingo du. Alderdiaren erronken berri emateko, eta helburu horietara heltzeko, Aralarren estrategia eta lan ildoak zeintzuk diren azaltzeko herriz herri dabilta Aralarreko kideak. Elgoibarren izan aurretik, Markina-Xemeinen, Bergaran, Azkoitian eta Asteasun ere izan dira.



Izenak **Manuel Salegi eta Pedro Garate**



Manuel Salegik eta Pedro Garatek zazpigarren postua eskuratu dute Euskal Herriko mus txapelketan. Seigarren sailkatuekin berdinduta amaitu zuten jokoa. Goizeko saioa gaintzea zen elgoibartarren helburua, eta hori ez ezik, arratsaldeko kanporaketan ere maila ona erakutsi zuten. Jokatutako zazpi partidetatik sei irabazi zituzten. Salegi eta Garate pozik daude txapelketan eginiko lanarekin, baina finala jokatzeko aukera izan eta gero, urrunago ez ailegatu izanaren “pena pixka bat” ere badutela aitortu dute.

Zenbakia **25**

Joan zen astean izan zen Zuhaitz Eguna, eta Elgoibarko hiru ikastetxeetako ehun neska-mutilek 25 haritz landatu zituzten. Urruzunetik Albitxurirako bidean landatu zituzten zuhaitzok, iaz landatutakoen ondoan.

Irudia **San Rokerako bide berria**

Atzerapenik ezean, Ubitarte Gain eta San Roke lotuko dituen bidea abuzturako amaituta egongo dela adierazi du Udalak. Iazko maiatzean bota zituzten Ubitarte Gain ingurunean zeuden industria eraikin zaharrak, eta azpian kutsatutako lurra agertu ziren. Horixe izan da bide berria egiteko oztopo nagusia, baina da-goeneko, Jaurilaritzak eman du lurra mugitzeko baimena.



ETAren azken erasoa gaitzetsi du Udalak

Frantziako polizia bat hil zuen ETAk joan zen astean, tiroz, eta Udaleko bozeramaileen batzordeak erasoa gaitzetsi du. Haien esanetan, “demokraziatik eta bizitzarekiko errespetutik” bakarrik lortuko da bakea.

Jaime Arrese gogoratu dute Gipuzkoako Batzar Nagusian

Komando Autonomo Antikapitalistek hildako Jaime Arrese elgoibartarra eta Juan Maria Jauregi batzarkide ohiak omendu zituzten eguaztenean Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Batzarkide eta beste zenbait politikarirekin batera, Carmen Araolaza eta Marixabel Lasa alargunak izan ziren omenaldian. Amaieran, plaka bana bistaratu zituzten, hildakoen omenez. Jaime Arrese 1980ko urriaren 23an hil zuten. Iriondo tabernan kafea hartu zuen egunero bezala, eta lanera joan aurretik egin zitoten tiro. 44 urte zituen.

Altzolako aparkalekua erabiltzeko prest dago

Altzolako bizilagunek aparkaleku berria izango dute aurrerantzean. Udaleko arduradunen arabera, 30 auto inguru aparkatzeko lekua izango dute bertan. Lur jabearekin bi urterako akordioa lortu zuen Udalak. Altzolako aparkaleku arazo konpontzeaz gain, aparkaleku berrien beharra zenbaterainokoa den aztertzeke asmoa dauka Udalak.





Elgoibarko autobus geltokietan ez dago markesinarik: “Lotsagarria da. Sigmako zuzian bizi osoan egon da autobus geltokia,

baina ez dago markesinarik. Madalan autobus geltokia jarri zutenetik ere pasatu dira urteak, baina markesinarik gabe jarraitzen dugu. Madalako geltokia jende askok erabiltzen du, bai Eibarrerako norabidean, eta, baita, Mendarora joateko ere. Aurtengo negua gogorra izan da. Euria, elurra eta hotza jasan behar izan ditugu egun askotan, eta haizea egiten zuen egunetan busti-busti eginda geratu izan gara. Ez dut uste gehiegi eskatzea denik markesinak jartzea. Lerungo errotandan markesina dotorea dago, eta oso jende gutxi erabiltzen du. Nire ustez, beharrezkoagoa da markesina Madalako geltokietan jartzea, jende gehiagok erabiltzen dituelako autobus geltoki horiek”.



Mendaroko sarreran dagoen ‘Mendaro euskaraz’ kartela ez da ikusten: “Mendaron gero eta gaztelania gehiago entzuten da kalean. Ez dut uste kartelak zerikusirik izango denik, baina ezkutuan dago, beste kartel baten atzean. Garrantzitsua izango litzateke kartela bistartzea”.

Basarte auzoan arratoiak daude: “Basarte auzoko haur parkean arratoiak ibiltzen dira. Garajeetatik irteten dira, eta ez dira gutxi. Udaletxera joan gara arazoaren berri ematera, eta arratoinen kontrako pozoia bota dutela besterik ez digute esan. Hori ez da nahikoa. Arratoiak ez dira pozoiz horrekin akabatzen, beraz, beste zeozer egitea eskatzen dugu”.

Kiroldegiko sauna bustian usain txarra egoten da: “Lehen eukalipto landareak jartzen zituzten usaina emateko, baina azkenaldian ez dute jartzen, eta oso usain txarra egoten da. Erabiltzaileok eskertuko genuke saunako usain hobetzeko zeozer jarriko balute. Mila esker”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

AIRETIK ATERATAKO ERRETRATUAK SALGAI!
 Eskatu zeurea!
 Informa zaitez
 943 744 112 telefonoan.



EZKONTZA 2010

MARTXOKO GEHIGARRI BEREZIA

GADIFOT ARGAZCILARITZA

Iñaki Galparsoro

Komentukoa, z/g
Tel.: 943 170 671
Ermua (Bizkaia)

www.gadifot.es



ARNOPE



NAVYA

I N P R I M A T E G I A K

ARNOPE

Jose M^o Altzibar, 6 - II. Blokea
Telf. eta Faxa: 943 603 194
e-mail: arnope@terra.es - ☎ 56
20830 MUTRIKU (Gizuzkoa)

NAVYA

Santa Ana, 44 - ☎ 208
Telf. eta Faxa: 943 744 451
e-mail: nava@euskalnet.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



San Bartolome, 4
Tel.: 943 744 048
ELGOIBAR

JOSU Bixidenda

- ☎ Personalizatutako argazkiak
- ☎ Bataioak
- ☎ Ezkontzak
- ☎ Opariak
- ☎ Orrolpenak
- ☎ Garaikurrak
- ☎ Ezkutuak



Oinetakoak neurrira



Ikusten ez direla dirudien arren, emazte-
gaiaren oinetakoak oso garrantzitsuak dira. Politik izan behar dute, baina, batez ere, erosoak. Ezkontza eguna luzea izaten da, eta hainbat ordu zutik egoteko, gorputzaren oinarria eroso egotea ezinbestekoa da. Dotoretasuna, emaztegaiaren izaera eta erosotasuna bildu behar ditu ezkontza-oinetakoak. Burutik hasi eta oinetara arteko detaileak zaindu behar dira ezkontza egunerako.

Ezkontza oinetakoen mundua anitza eta zabala da. Tendentziak eta modak aldatu egiten dira, eta, horrez gain, soinekoaren ezaugarriak hartu behar dira kontuan ezkontzarako oinetakoak aukeratzeko. 2010eko emaztegaien zapatak nolakoak izan behar diren, argi dago: zilar kolorekoak, larru leunekoak, eta zenbait kasutan, urrezko detaile txikiak dituztenak. Hala ere, norberak bere izaera hartu behar du kontuan, eta horren arabera oinetakoak aukeratu behar ditu. Ezkontza egunean ez da moztaratu behar!



Horrez gain, oinetakoak neurrira egiteko aukera ere eskaintzen dute gaur egun zenbait zapata-etxek. Hanka bat bestea baino luzeagoa edo oin bat bestea baino handiagoa baldin badaukazu, oinetakoa zure hankara egokitzeko aukera daukazu. Hori bai, konponketa horien ondorioz, oinetakoak garestitu egiten dira, jakina. Gainera, denbora behar izaten dute zapatak moldatzeko, eta, gutxienez, hiru hilabe aurretik eskatzea gomendatzen dute.



Gaur egun, aukera zabala dago ezkontza oinetakoetan, eta ezkongai bakoitzak bere neurrirako oinetakoa aukeratu behar du. Sandaliak, botinak, bailarinak, eta baita zapatilak ere jantzi daitezke ezkontzeko.



Errealitate bihurtu zure ametssetako bidaiak

VIAJES ECUADOR-en

San Bartolome Kalea 5
Tel.: 943 74 78 82 - 943 74 78 83
Faxa: 943 74 04 68
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa) egunkari@viajesecuador.com

Jasone
Zerbitzu Digitalak

- Lan komertzialek.
- Kartelgintza era guztietako lanerako eta aukerakizunak.
- Ezkontza gonbidapenak, egutegiak, etab.
- Inprimaketa digitala

San Bartolome Kalea 15 - beheko - 20870 ELGOIBAR - Gipuzkoa
Tel.: 943 53 17 45 - jasone@jasone.com - www.jasone.com

Ezkontzatarako apainketak:

- Erramun
- Eliza eta jatetzeko apainketa
- Autoa

ESKA EZAZU LASAI AURREKONTUA

943 740 189 / 688 631 307
Merkatu plazan!
www.pagoa.com

PAGOA
LORAZOEN eta LORAZOEN

AZALEA Edergintza
M^{re} Carmen Bereziartua

Trenbide Kalea, 3 zkl. beheko - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 03 10

Hileko: San Bartolome Kalea 15 - beheko - 20870 ELGOIBAR

GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA
Dardizketa (hasiera, erlatibitate eta argiztasunak) - Mikroplasma (hasiera)

Epaitegian Elizan baino nahiago

Maitasuna, elkarbizitza, errespetua, ilusioa, konpromisoa... Sentimendu eta bizipen horiek guztiak eta gehiago biltzen ditu ezkontzak hainbatentzat. Urte askoan, Eliza bidez adierazten zioten elkari maitasun konpromiso hori ezkongaiak, baina gero eta gehiago dira Elizan beharrean epaitegian ezkontzen direnak. Hala adierazten dute behintzat Eustaten datuek -Euskal Estatistika Erakundea-. Iazko azken hiruhilekoan, esate baterako, 2.652 bikote ezkondu ziren Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian, eta horietatik erdiak baino gehiagok (%54,3) epaitegian sinatu zuten ezkontza agiria. Hau da, 2008an baino %8,6 gehiago. Eustaten arabera, gainera, joera hori nabarmentzen ari da azkeneko urteetan.



Norberak erabakitzen du batean edo bestean ezkondu. Zenbait bikoteren kasuan, ordea, ezkondu ahal izatea bera ere eskubide berria da. Gay, lesbiana, bisexual eta transexualak urte luzez aritu dira eskubide berdintasunaren alde, eta jarraitzen dute oraindik ere. Izan ere, Euskal Herri osoan homosexualen eskubideak ez dira berdinak. Hego Euskal Herrian duela lau urte legeztatu zituzten sexu bereko bikoteen ezkontzak, eta orduan hona 568 bikote baino gehiago ezkondu dira lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Federazioaren arabera. Ipar Euskal Herrian, ordea, oraindik legeztatu gabe daude sexu berekoen arteko ezkontzak. Frantziako legediaren arabera, ezkontza zibilak heterosexuak izan daitezke bakarrik.

Ipar Euskal Herrian bikoteak legeztatzeko bi aukera baino ez daude gaur egun. Batetik, ezkontza, zeina heterosexuaren artean izan daitekeen bakarrik. Bestetik, *pac*s izeneko elkartasun itun zibila. *Pacs*-ak bikote bat "ofizial egiteko" aukera ematen du, baina ez ditu ezkontza batek ematen dituen eskubide berdinak ematen, hau da, itun horrek bikotekideen ondasunetan dituen eraginez gain, gauza gutxitan aldatzen du ofizial egin gabeko bikote baten egoera.

Imprenta Arrillaga

Inprimaketa: Offset | Digitalizatzen | Kolorazioa: Pantone | Kalkulazioa: 24h

Fotokopiatuak | Kalkulazioa: 24h

Trenbide Kalea, 13 - behea

Tel.: 943 74 01 87 | e-posta: arrillagasi@euskalnet.net

Garbiñe Estetika

Prestatu zaitez tratamendu berriekin:

- Tratamendu naturalak
- Aromaterapia
- Txokolaterapia
- Bildukina fruitu gorrien esentziak

Ezkontza egunerako prestatzeko tratamendu bereziak ditugu.

P.M. Uruzuria, 27 - Tel.: 943 74 31 32

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 | Tel.: 943 741 189

ILEAPAINDEGIA-EDERSINTZA

DONNA

- Mankadura/Pedakura
- Meleakak
- Auzpegiak arnasa garrantzitsuak
- Maki gisa
- Depilazio elektriko berria eta aplikatzen
- Depilazio elektriko
- Soinuzko eta auzpegi tratamenduak
- Duhazur adieraketa

Padra Ina, ruza erabilera, 13 - Bilboan - Tel.: 943 744 246

DEBAPE

INPRIMATEGIA

komunikazio grafikoa

- DISEINU GRAFIKOA
- OFFSET LITOGRAFIA
- FOTOKONPOSIZIOA
- PUBLIZITATE DISEINUA
- ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK

Sigma Ind., Xixilion 2, 2. (7.lokala) • Tel.: 943 74 40 58

• Faxa: 943 74 41 78 • debape@debape.com • www.debape.com

Adinean gora

Ezkontzei dagokienean, badira, bi datu esanguratsu, estatistika guztietan nabarmentzen dituztenak: ezkongaien adina eta ezkontza data. Orain 60 urtetik gora dituzten emakumeen hiru-laurdenak inguru 25 urte bete aurretik ezkondu ziren, baina ohiturak aldatu egin dira, eta, orain, ezkontzen diren hamar emakumetik seik 30 urtetik gora dituzte. Orain bi urte, beriz, erdiek inguru gainditzen zuten adin hori. Gizonezkoen kasuan ere gauza berdina gertatu da. 2008an, ezkondu zirenen %75 ziren 30 urtez gorakoak, eta iaz, beriz, %79.

Ezkondu nahi izanez gero, edozein egun izan daiteke ona, baina estatistiken arabera, bikote gehienek udaberria eta uda sasoiak dituzte gogokoen. Eustaten datuak argiak dira: laz, uztailaren izan ziren Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban ezkontza gehien: 1.157. Uztailaren ondoren, irailean izaten dira ezkontza gehien, eta gutxien, beriz, abuztuan. Iaz, 457 ezkontza izan ziren abuztuan, 2008an baino %18 gutxiago.





estetikaalire

Ondakoa: Astelehenetik - Asteartea 09:30-12:30 / 15:00 - 20:00
Asteazkena: 09:30 - 19:00 - Larunbata: 10:00 - 13:00
Hizte-eremua: "Luzen" - Tf. 943.531.636 - Euzkadi

EMAZTEGAIEN ZAKO ESKAINTZA BERRIA

- GORPITZ-TRATAMENDU GUKOLIKORAK,
- BERRITU EZAZU ZURF AZAIA,
- HILABETE BIONETAN %10KO GENBRAPENA.



TRATAMENDUAK: Auzpegi eta gorpuz tratamenduak (zuluetsaren aurkakoak, erradukioerak) - Ongizate tratamenduak - Masajeak - Depilazio laser, elektrikoa, argizarrakoa - Mikropigmentazioa - Manikura - Mankatuko kosmetika - Solariuma - Medikuntza eta kirurgia estetikoa

FOTO JAUJA

www.fotojauja.com

EIBAR T.L.F. 943.202716
URKI 17 BEHEA M. 688647344



EZKONTZA 2010



ARAMBURU

BIFIXIDENDA

San Frantzisko, 26
Tel./faxa: 943 74 25 35





HAIR'S

ILEA PAINDEGIA

San Bartolome, 6 behekoa
Tel.: 943 53 12 79

**ASTEARTEETAN
JUBILATUEN
EGUNA:**

- Orraztu 8 €
- Garbitu, moztu eta orraztu 16 €

Olaia

Laser depilazioa

LPG

- Grasak gutxitu
- Gorpuzka gogortu
- Gorpuzka liraindu
- Lisatu

- Sesio bat: 35 euro
- Hamarreko bonoa: 300 euro
- Dardarazko plataformarako bonoa oparitzen dugu

GOGORATU ESKAINTZA APirilAREN 8AN BUKATZEN DELA

Apirilaren 8tik aurrera

- Sesioa 49 euro
- 10eko bonoa 395 euro

San Inazio, 4 behekoa
20870 Elgoibar
Telf.: 943 742 725
www.ammergroup.es

Kala

LORADENDA

San Frantzisko, 24
Tel. 943 744 516

AGURTZANE

c.b.

ileapaindegia

**Ferpas
Fitness-plate
massage**

PROBA EZAZU!

2 euro saio bat
20 euro 12 saio

FOTODEPILAZIOA

Santa Ana, 18 - 20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

Musikaren arduraduna, DJa

Ezkontza egunean detaile guztiak zaindu behar dira: soinekoa, loreak, kopariak... eta bazkalosteko musika. Ezkongaiak dantza egin ondoren, gonbidatuek hartzen dute protagonismoa, eta, musika ondo aukeratu behar da. Orotariko musika gustatzen zaio jendeari, eta denen gustuak hartu behar dira kontuan. Horretarako aukera zabala eskaintzen du DJak.

Garai batean orkestra taldeek jarduten zuten ezkontzetako giroa alaitzen, baina, gaur egun, gero eta gehiago dira DJa kontratatzen dutenak. Orkestra taldeek musika aukera mugatua izaten dute, eta horren aldean, abantaila handiak eskaintzen ditu DJak: musika mota anitza eta kantu bilduma amaigabea izan ditzake, eta dantzaldia nahi beste luzatu daiteke. Gainera, arreta eta zerbitzu personalizatua eskaintzen dute, eta ezkongaiak euren gustuko musika eskatzeko aukera daukate.

Musika aparatuek eta festa girorako beharrezko guztiak DJak berak ekartzen ditu, eta ezkongaiak ez dute ezertaz arduratu beharrik izaten. Gainera, orkestra baino merkeagoa irteren da. Erosoagoa, merkeagoa eta hobea da. Beraz, laga zure ezkontzako musika DJaren esku!



Osasun eta Edergintza Zentzu Berria

- **PHOTON** (bizi-energia, prebentzioa, indarberritzea, osasuna eta bizi-kalitatea)
- **MASAJEAK** (kontrakturak kentzeko, terapeutikoak eta lasaigarriak)
- **MEDIKOA** (obesitaterako mesoterapia, simur eta edertasunerako restylane eta mikrobarise eta hiperosioarentzako to 3000)
- **AKUPUNTURA-NATUROPATIA-DIETISTA**
- **DIDO LASEKRA-APL-Neodimio-YAG**
- **ESTETIKA** (depilazioak, manikura, oin tratamendua, tinte iraunkorra, eta betileen huzpena)
- **SPA** (harri bolkaniko, banbu kanabera, pindak, manikura eta oin tratamendua)

- SPA manikura
- Oinetako SPA tratamendua
- Aurpegi larruazalaren garbiketa

70 euro

- Solarium bonoa (10-1)
- Guepuztekn peeling-a
- Aurpegi larruazalaren garbiketa

80 euro

The logo for 'Aupa zen' features a stylized bird or flame icon above the text 'aupa zen' in a lowercase, sans-serif font.

IDOIA ALVAREZ eta JULIA QUINTANA

Jausoro plaza, 1 - Elgoibar - Telefonoa: 943 743 440

JOSE ANTONIO

ILEAPAINDEGIA

Errosario, 30
Tel: 943 74 14 92

DONNA

Ileapaindegia-Edergintza

Pedro Muguruza, 13
Tel. 943 74 43 88

ELENA

ileapaindegia
depilazio elektrikoa

San Frantzisko, 49-1
Tel: 943 74 11 89

Tximak

ILEAPAINDEGIA
solariuma

Kalamua, 2 · Tel: 943 74 43 57

HAIR'S
ILEAPAINDEGIA

San Bartolome, 6 behe
Tel: 617 988 130

AGURTZANE ileapaindegia

LASER DEPILAZIOA!
Santa Ana, 18 - Tel. 943 74 18 64

Maria Urizar Ileapaindegia Solariuma

Errosario, 9-1 · Tel. 943 74 44 89



Udaberrian sartu berri gara, eta bihar ordu aldaketa egingo dute.

Udaberrian sartzeak eragiten dizu?



Mikeldi Aiarza
44 urte, komertziala

Udaberriak ez dit gehiegi eragiten, eta ez dut neure burua nekatuago igartzen. Agian urte guztian nekatuta egoten naizelako izan daiteke, baina berdin-berdin sentitzen naiz. Ordu aldaketarekin arratsaldea luzatu egiten da, eta argitasun gehiago egotea gustatzen zait.



Francisco Javier Beato
26 urte, langabetua

Ez. Lanean dagoen jendeari agian eragingo dio, baina niri ez dit batere eragiten. Ordua aldatzeak ez dakit benetan zein onura dituen. Argia aurrezten dela diote, eta hala izango da. Neguko aldaketarekin juergarako ordubate gehiago izaten da, eta hori ez dago gaizki.



Itziar Azpiazu
43 urte, erizain laguntzailea

Bai, izugarri eragiten dit, baina onerako! Gainera, aurtengo negua oso gogorra izan da, eta eguzkiaren zain nengoan. Udaberriak eta eguna luzea izateak beste poztasun bat ematen dit. Kalera irteteko, janzteko eta edozertarako animuak ematen dizkit.



Mari Carmen Villanueva
53 urte, tindategiko langilea

Egia esanda, ez dit eragiten. Dena dela, udako ordutegia gehiago gustatzen zait, arratsaldeak luzeagoak direlako. Nik, gainera, goizez ez dut lanik egiten, eta esnatzen naizenerako argi egoten da. Arratsaldez egiten dut lan, eta irtean argi egotea gustatzen zait.

I. URTEURRENA

TIBURCIO ARAMBURU ARRILLAGA

2009ko martxoaren 28an hil zen, 82 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, martxoak 27, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



ESKERTZA

JOSE LUIS RAMON PEREZ

2010eko martxoaren 18an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ARNOATE, Arnorako atea

Gipuzkoa eta Bizkaia lotzen dituen mendi lepoa da Arnoate, izenak berak dioen legez, Arnorako atea. Bertan dago izen bereko baserria, hausturatan eta lokaduratan espezializatutako zenbait petrikilloren sorleku izan zena. Mendi itxia eta bide askoren bidegurutzeta ere bada, eta horrexegatik, beharbada, tratante eta bidelapurren ibileren testigu izan da urte askoan. Era berean, Done Jakue bidea egiten ari diren ehunka erromesen atse-denlekua ere bihurtu da, Zumaiaetik Ziortza-Bolibarrera arteko bidea luze egiten zaienentzako pausalekua.

Ainara Argoitia

Historia handiko baserria da Mendaroko Arnobate. Mendaro herria sortu aurretik (1983), Markina, Elgoibar eta Mutriku udalerrien muga zegoen bertan, eta pasabide handiko lekua zen. Etxe barruan izan zuten mugarría sasoi batean. Orduan, bertakoek harro esaten ei zuten Mutriku jizten zituztela behiak, Elgoibarren bazkaltzen zutela eta Markinan oheratzen zirela. Gaur egun, etxeko atarian dago mugarría, eta Mendaro eta Markina banatzen ditu, nahiz eta oraindik Mutriku, Elgoibar eta Markina izenak irakur daitezkeen harriaren alde banatan. Bitxia da Arnoate. Ezkaratza eta logelak Mendaro ditu, Gipuzkoan, eta komuna eta korta, Markinan, Bizkaian.

Hainbat sasimedikuren sorlekua izan zen Arnoate -Arrillagatarrena-, eta horrek ospe handia eman zion. Arrillagatarren familiako bi kidek, Pedro Mariak eta Antoniok, Arnoateko jakinduria tradizionala unibertsitateko ikasketekin uztartu zuten, eta aldi berean, Julian Arrillaga Alberdi sasimedikuak, Antonioren aitak, praktikante titulua ere atera zuen, Zaragozan. Klinika ere jarri zuen Elgoibarko Santa Klara kalean, eta, tarteka, Donostiara ere joaten omen zen zaldiz, koltsulta pasatzera. Hala dauka jasota Pello Arrietak *Elgoibar modernitatearen atarian-Euskal jaiak* izenburuko liburuan. Era berean, Bizkaiko mezetatik ohatiletan zaurituak ekartzen zizkiotela ere esaten da.

Gaur egun, Mendaroko Iraolagoitia sendiarena da baserria, baina atariko horman lehengo jabeen izen-deiturak ageri dira oraindik: J.A.A, 1854. "Nik uste urte horretan erosi zutela Arrillagatarrek etxea, 1854an. 1847an erreteroa zirela jartzen du agiriren batean, eta nik uste gerora erosi zutela Arnoate", azaldu du Igor Iraolagoitiak. Izen handiko familia zen Arrillagatarrena. Garoa ebateko sasoiari, inguruko bazter guztietako baserriarrak joaten ei ziren Arnoatera lanera, bazkari baten truke. "Etxe honek Mendaro aldera daukan balkoi itxian mahai handi bat jartzen omen zuten, inguruotan lanean ibilitako denei bazkaltzen emateko.



Haitzart eta Laiene, Arnobate baserriko txikiak, etxe atarian.

Jendetza handia batzen omen zen, eta sekulako mozkorrak harrapatzen ei zituen jendeak", dio Jesusek, Igorren aitak.

Arnoateko erromeria

Ez zen hura izaten parrandarako egun bakarra Arnoaten. Pazku erdi egunez erromeria egiten zen, eta inguruotako bazter guztietako gazteak batzen ziren bertan. Oinez egiten zuten bidea, bidezidor eta estrata zuloetatik gora sarri. Bitoriano Loiola Ospas soinu joleak ere ondo gogoan dauka Arnoateko erromeriak. 14 bat urte zituela Juanito Arnoateri ikasitako pieza bat ere gogoan dauka oraindik. Berak esana da asko izango direla Arnoateko erromerian ezagutu eta gerora ezkon dutako bikoteak. Juanito Arnoate soinu jolea ere Arnoaten bertan jaio zen, nahiz eta oso gazte joan zen Eibarrera bizitzera. "Oso estimutan dauka bere jaiotetxea izan zena. Makal xamar dabil aspaldian, baina hona ekartzen dutenean piztu egiten da. Inguruotako baserri guztien izenak oroitzen ditu", dio Naiara Arrillagak, Igorren emazteak.

Arnoateko erromeria aspaldi galdu zen, baina urte sasoi batzuetan erromerian beste jende ibiltzen da paraje horietan. Bereziki, ekaina eta uztaila aldean. Bertatik pasatzen da Done Jakuerako bidea, eta Sasio-la eta Astigarribiatik gora erromes ugari iristen dira, Markina eta Ziortzarako bidean. “Kostaldeko bidea pasatzen da hemendik. Zumaian hasi eta Ziortzan bukatzen da etapetako bat, eta asko txikituta iristen dira hona. Erromesak zenbatzen ibiltzen den lagun bat daukagu Deban, eta hark esan zigun iaz 1.600 lagun inguru pasa zirela handik. Egunean-20-25 lagun pasatzen dira guretik”, azaldu du Igorrek.

Lehertuta iristen diren gehienek Arnobaten bertan pasatzen dute gaua, kanpin dendetan askok eta asko. “Askan sartuta ere bai batzuek”, gehitu du Naiarak. “Iaz andre handi batek askan lo egin zuen, eta hurrengo goizean suge handi bat topatu zuen aitak han”, esan du horren harira. Erromes batzuekin “harreman polita” ere egin izan dutela dio. “Iaz andre-gizon batzuk etorri ziren, eta gure umeak han ibiltzen ziren euren kanpin dendan atzera eta aurrera. Beste batean, bikote gazte bat etorri zen, gosez itxura batean. Jatekorik ez zutela ikusita, kalerakoan txokolatea eta ogia laga genien, eta bueltakoan, erromesen karta bat eta kalabaza txiki bi geneuzkan atean, oparitzat”.

“Takoidun edo plataforma handiko espartinekin ere iritsi dira erromesak hona”

Esker oneko jendea bezala, azal gogorrekoak ere iristen direla dio. “Ia etxe barruraino etorri eta atarian bertan eguzkia hartzeko etzaten direnak-eta”. “Endredatutako” jendea ere, dozenaka. “Takoidun edo plataforma handiko espartinekin ere iritsi da hona jendea, baita astoa edo zaldia lagun hartuta ere. Eroskiko plastikozko poltsarekin Galizira lanera doan bakarren bat ere pasatu da hemendik, eta txakurrei alforjak jarrita ere ikusi izan ditut”, gehitu du Igorrek.



Mugarria. Hiru udalerriren izenak daude bertan zizelkatuta.



Etxe atarian dago mugarría, argazkian ikus daitekeen bezala.

Bidegurutzea

Eruz ibiltzen da jendea Arnoaten. Antzina ere pasabide handiko lekua zen. Urola bailaratik Larraskandan barrena Bizkaia aldera zihonoan hamaika merkatarí, Mutriku eta Ondarroako portuetatik Elgoibar, Eibar eta urutiagoko merkatuetara arraina zeramatenak, artzainak, motxailak, bidepalurrak eta beste asko pasatzen ziren bertatik. “Makina bat istorio kontatzen dituzte lapurrenak-eta. Tximiniatik sartzen ei ziren etxera. Nik uste ipuina izango dela hori, baina batek daki. Hemen inguruan makina bat ezkutaleku ei ziren, eta hori sinesgarriagoa egiten zait, mugan egonda kontrabandurako leku aproposa izan zitekeelako”, adierazi du Jesusek. Ahozko tradizioak Txomin Beltza ikazkin lapurra- renak eta trabukoa eskuan hartuta ibiltzen zen Joakin Iturberen istorio- ak jasotzen ditu, besteak beste.

Orain ere, atzera-aurrera askoren lekuko dira arnoatearrak. Mendi bizikletaz ibiltzeko ibilbideetako bat bertatik pasatzen da, eta asko dira bizikletan, motorrean nahiz oinez bertatik pasatzen direnak. Bestelako bisitak ere izaten dituzte, baina, aspaldian. “Guardia Zibila sarri etortzen da. Nik uste maniobretan ari direla, baina aurreko zapatu gau osoa hemen eman zuten. Argi foko handiak etxera begira jarri, eta hantxe”, esan du Igorrek.

Mendi itxia da Arnoate, baina ezaguna hemen inguruko bazterretan.

Elgoibarko produktuekin eginiko babarrunak prestatuko ditu CD Elgoibarrek zapatuko ferian

Ganadu erakusketa, barazkien salmenta eta Kale Kantariak ere izango dira

Bihar egingo da martxoko azken zapatuko feria, eta babarrunak izango dira protagonista nagusiak. Orain dela hiru hilabete Sanlo elkarteak haragi gisatua prestatu zuen moduan, bihar CD Elgoibarko lagunek egingo dituzte babarrunak, bertako produktuekin. Goizean goiz hasiko dira lanean, eta eguerdi alderako prest egongo dira. Bi eurotan salduko dute babarrun platera, eta lortzen duten dirua klubaren gastuei aurre egiteko erabiliko dute.

Antolatzaileek esandakoaren arabera, herriko elkarteek txandaka hartuko dute feria gastronomikoa antolatzeko ardurara. Apirilean Danborradaren Batzordeak kudeatuko du azokako txosna, eta ekainean, Sanlo elkarteak. Maiatzean Trinitate Jaiak direla-eta, ez da azoka gastronomikorik egingo.

Eguerdi partean, Kale Kantariak arituko dira kaleak kantuz girotzen. Arratsaldean, berriz, ganadu erakusketa eta salmenta egingo dituzte Plaza Txikian. Gainera, Eusko Label markakako oilasko lumagorria eta abelgorrien sahieski dastatzea egingo da.

Horrez gain, hileroko feria guztietan bezala, Elgoibarko baserritarrek barazki salmenta postuak jarriko dituzte 9:00etatik



14:00etara Nafarroa Plazan, eta baserrirako tresneria erosteko aukera ere izango da.

Elgoibarko dantzariak emaitza onak lortu dituzte Oiartzungo Aurreku eta Soinu Zahar txapelketan

Oiartzungo Aurreku eta Soinu Zahar txapelketan hartu zuten parte Elgoibarko dantzariak joan zen asteburuan, eta emaitza onak lortu zituzten. 11 eta 15 urtekoen sailean, Aitor Asenjo hirugarren postuan sailkatu zen mutiletan. Nesken kategorian, Ane Espilla bigarrena izan zen, eta Arantxa Ferreirok hirugarren postua eskuratu zuen. Gainerako elgoibartarrek honako postu hauek lortu zituzten: Iraitz Gonzalez (5.), Nerea Badiola (12.), Leire Melgosa (15.), Alaitz Egaña (17.), Leire Urzainki (21.), Goizeder Etxeberria (22.) eta Nora Bastida (24.). Domekan 7 eta 11 urte bitartekoek hartu zuten parte. Leire Morales bosgarren postuan sailkatu zen, eta Maialen Loiola zortzigarrenaren.



San Bartolome jaietarako proposamenak

Udaleko Kultura Sailak San Bartolome jaietarako proposamenak egiteko aukera eskaini die herritarrei. Jaietako egitarauan sartzeko proposamenak Kultura Saileira bidali behar dira, datorren apirilaren 6a baino lehen. E-postaz bidaltzeko, kultura@elgoibar.org helbidera idatzi beharko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 742 158 telefonora deitu daiteke.

Literatura eta arte tailerrak antolatu ditu Haizeak

Haizea emakume taldeak antolatuta, literatura eta arte tailerrak izango dira datorren astean. Astelehenean, *La casa de Bernarda Alba* liburua aztertuko dute Udal Liburutegian, 18:00etatik aurrera. Martitzenean, berriz, *Los fusilamientos de la moncloa* artelana landuko dute, 17:00etan hasita, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Jubenilen Euskadiko eskubaloi txapelketa jokatuko dute asteburuan

Mutlen Bigarren Nazional mailako igoera fasea, zapatuan

Eskubaloia gustuko duenak asteburu handia izango du datorren hau, izan ere maila handiko partidak jokatu dira Elgoibarren. Batetik, jubenil mailako nesken Euskadiko txapelketa jokatu dute gaur, bihar eta etzi, eta bestetik, senior gizonezkoek Bigarren Nazional mailako igoera fasea jokatu dute, zapatuan. Era berean, hitzaldiak ere antolatuta dituzte biharko, Musika Eskolan.

Isidoro Martinez Martin, juniorren hautatzailea eta maila apaletako selekzioen hautatzailea, eta Jorge Dueñas, nesken hautatzailea, ekarriko dituzte bihar. Izar gazteen inguruan jardungo du Isidoro Martinezek, bihar, 11:00etatik 12:30ak arte. Jorge Dueñasek, berriz, infantiletatik jubeniletara arteko mailetan



kontuan hartu beharreko arlo fisiko, tekniko eta taktikoen gainean jardungo du, bihar, 12:30etik 14:00ak arte. Hitzaldiak tekniko eta entrenatzaileei zuzendutakoak dira, eta interesatua dagoenak Euskadiko Eskubaloi Federazioaren web orrian eman behar du izena. Izen emateak 15 euro balio ditu, baina prezio horretan bazkaria ere sartzen da.

EMAITZAK

FUTBOLA

Lagun Onak 0 – Haundi 3 (3. maila)
 Elgoibar 1 – Amaiak Bat 1 (Erreg.)
 Santo Tomas Lizeo 1 – Elgoibar 2 (Jub.)
 Elgoibar 0 – Aloña Mendi 0 (Kad. A)
 Ordizia 1 – Elgoibar 4 (Inf.)
 Beasain 0 – Elgoibar 1 (Txiki)
 Elgoibar 2 – Ordizia 3 (Aleb.)
 Eibar 4 – Elgoibar 2 (Aleb.)
 Elgoibar 6 – Bergara 1 (Nesk.)

ARETO FUTBOLA

Astraburuko 3 – Concepto Createch 9

SASKIBALOAIA

Anbolo 10 – Lizardi 53 (Neskak)

ESKUBALOAIA

Alkorta Elg. 30 – Hegialde 30 (Sen. mut.)
 Leizaran 17 – Berstain 24 (Jub. mut.)
 Pneumax Elg. 27 – Zalla 24 (Kad. nesk.)
 Lauko Elg. 21 – Ereintza 11 (Kad. nesk.)
 Bergara 29 – Txarriduna Elg. 24 (Inf. mut.)
 Arrate 23 – Bankoa Elg. 20 (Inf. mut.)
 Aterpe Elg. 16 – Udarregi 15 (Inf. nesk.)
 Pulpo 20 – Ikus Elg. 20 (Inf. nesk.)
 Astigarraga Elg. 9 – Pakita Altzariak 8 (Inf. nesk.)
 Tecnifuelle Elg. 22 – Aiala 15 (Sen. nesk.)
 Grupo Eibar Elg. 36 – Kukullaga 27 (Jub. nesk.)
 Alaves 19 – IMH Elg. 19 (Kad. nesk.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 27

16:00 Concepto Createch – Ceramicas Nogales

FUTBOLA (Mintxetan)

Domeka, 28

10:00 Elgoibar –Lagun Onak (Aleb.)

11:30 Elgoibar – Aloña Mendi (Ohorezko inf.)

ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Barxakua, 26

18:00 C.B. Kukullaga. – Aiala Ostalaritza Zarautz.

(fase finala)

20:00 Usurbil K.E. - Grupo Eibar Sanlo Elg. (Fase finala)

Zapatua, 27

11:00 Bankoa Elg.-Bergara (Infantil mutilak)

12:00 Aterpe Elg.-Iruena Ordizia (Infantil neskak)

18:00 C.B. Kukullaga - Grupo Eibar Sanlo Elg. (Fase finala)

(fase finala)

19:30 Aiala Ostalaritza E.Zarautz - Usurbil K.E.

(Fase finala)

21:00 Alcorta Elg. - Deusto (Senior gizonezkoak)

2.Nazionalera igoera fasea)

Domeka, 28

10:00 Usurbil K.E. - C.B. Kukullaga (Fase finala)

12:00 Grupo Eibar Sanlo Elg. - Aiala Ostalaritza

Zarautz (Fase finala)

ESKU PI LOTA (Ikastolan)

Domeka, 28

11:00 Lagunak – Arrasate (Kad.)

12:00 Lagunak – Eskoriatza (Nag.)

13:00 Lagunak – Arrasate (Nag.)

Klubentzako diru laguntzak eskatzeko epea hilaren 29an, astelehenean, amaituko da

Udal Kirol Patronatuak klubei ematen dizkien diru laguntzak eskatzeko epea astelehenean amaituko da. Dokumentazio guztia Olaizaga kiroldegian aurkeztu behar dute interesatuek. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 744 415 telefonora deitu behar da.

Lorea Santiagok Zestoako eta Villasana de Menako krosak irabazi zituen joan zen asteburuan

Mintxeta atletismo taldeko Lorea Santiagok bi lasterketa irabazi zituen joan zen asteburuan: Zestoakoa eta Villasana de Menakoa (Burgos). Lorearekin batera, Elgoibarko korrikalariak emaitza onak lortu zituzten bi proba horietan, eta klubak Daniel Rino eta Pedro Cardaba entrenatzaileen lana goraiatu du.

Mikel Anakabek, bestalde, Gas-teizko 10.000 metroko lasterketan hartu zuen parte junior mailan, eta hirugarren postua eskuratu zuen.



LANA

ESKAERA

- Emakumea garbiketa lanak eta haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo lanaldi osoan. ☎ **686 234 612**
- Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Esperientziarekin. ☎ **697 702 158**
- Emakumea garbiketa lanak edo haurrak eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **609 217 705**
- Neska gaztea eskaintzen da orduka lan egiteko: garbiketa lanetarako zein haurrak eta nagusiak zaintzeko. ☎ **663 786 976**
- Emakumea lanerako prest nagusiak eta umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiteko. Interna edo externa. Orduka. ☎ **626 329 979**
- Neska interna lan egiteko prest nagusiak edo haurrak zaintzen. ☎ **637 973 856**
- Emakumea lanerako prest umeak edo nagusiak zaintzeko, tabernetan edo jatetxeetan lab egiteko, eta garbiketa lanetarako. Egunez edo gauetz. Asteburuan ere bai. ☎ **626 914 904**
- Gizonezkoa sukaldari laguntzaile, igeltsero laguntzaile edo banatzaile lanak egiteko prest. ☎ **649 962 997**
- Gizonezkoa sukaldari laguntzaile, igeltsero laguntzaile edo banatzaile lanak egiteko prest. ☎ **638 344 377 / 943 530 795**
- Emakumea lanerako prest haurrak eta nagusiak zaintzeko. Orduka, egun osoz edo interna. ☎ **618 052 967**
- Mutil gaztea lanerako prest. Sukaldeko laguntzaile izateko, garbiketa lanak egiteko, igeltsero laguntzaile aritzeko edota supermerkatuko kutxan lan egiteko. ☎ **638 465 098**

- Emakumea edozein lan egiteko prest. Ordu-tegi malguarekin. ☎ **626 914 904**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest, as-teburu eta jai egunetan, edo interna moduan. Klinika laguntzaile tituluarekin. ☎ **943 748 209**
- Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako prest. Orduka, egun erdiz edo egun osoz, astelehenetik barixakura. ☎ **680 753 166**
- Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo tabernan lan egiteko prest. ☎ **652 147 019 / 687 371 060**
- Emakume euskalduna pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **660 511 781**

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Basarte auzoan pisua salgai, garajearekin. 77 metro koadro. Eguzkitsua. Egoera onean. Oso aukera ona. ☎ **647 372 033**
- Elgoibarren pisua sañgai. Erdigunean, altzariarekin, ber-ritua, eguzkitsua eta igogailuarekin. 150.000 euro. ☎ **686 344 252**
- Alokairuko pisu baten bila nabil Elgoibarren edo Eibar-rran. ☎ **651 663 342**
- Lokal txikia alokairuan, San Roken. ☎ **667 838 858**
- Etxea salgai Pedro Muguruzan. Hiru logela, egongela, sukaldea (altzariarekin), 70 metro koadroko terraza eta garajea. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **685 724 553**

GARAJEAK ETA MOTORRA

- Lambretta bat saltzen da, 1969.urtekoa. 150 Li. Ego- era onean. ☎ **654 949 123 / 943 531 771**
- Kotxe txikiarentzat garajea salgai edo alokatzeko Bernardo Ezenarro kalean. Eroski azpian. ☎ **665 720 977**
- Preparatutako BMW autoa salgai. M3 E36. 99koa, urdina 18 pulgadatarako llantak, Galper frenoak, ITVa oraintze pasata. 85.000 kilometro. ☎ **616 266 212**

BESTELAKOAK

- Otsailaren 26an urrezko pultsera galdu nuen Ermua- ranbide kaletik Toletxegaineko tren geltokira bitartean. Balore handikoa da. Saritu egingo da. ☎ **943 743 578 (Julii)**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira **BARREN**en eta astero *barren.iragarkilaburak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak	Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra
Astebete : 5 euro	Astebete : 10 euro
2 aste : 8 euro	2 aste : 17 euro
3 aste : 10 euro	3 aste : 25 euro

Jarri ezazu zure publicitatea

B
BARREN
astekarian
943 743 704





• Zorionak, **amama Maria Luisa**, eguaztenezan urteak beteko dituzulako. Erika eta Maddiren partez.



• Zorionak, **Sara gure printzesa**, zure bigarren urtebetetzean. Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Enara**, zure zazpigarren udaberrian, familia osoaren partez, bereziki Ane, ama eta aitaxoren partez. Mila muxu.



• 3 urtetxo gure artean, **pitufol**. Zorionak maite zaitugunon partez.



• Zorionak, **Ainara**, zure 8. urtebetetzean, familiako guztien partez.



• Handitzen, handitzen... Ni nabil handitzen! Zorionak, **Iria**.



• Zorionak, **Beñat**, 5 urte egin dituzulako. Anaia Ibai eta lehengusina Maite eta Nahiararen partez.



• Zorionak, **Ane**, Maddi, Mikel eta etxekoen partez. Prestatu pastela, jarri hiru kandela eta joango gara putz egiten laguntzera.



• Zorionak, **Haritz**, zure seigarren urtebetetzean. Muxu bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Unai**. 8 urte potolo dagoeneko! Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Kalet**, martxoaren 23an 3 urte egin dituzulako. Etxekoen eta bereziki, arreba Areneren partez.



• Zorionak, **Nayeli**, 8 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familiaren partez.



• Zorionak, **Jorge**! Zein azkar pasa diren 2 urte! Muxu handi bat familiaren partez.



• Zorionak, **Ane**, zure 9. urtebetetzean. Ondo pasatu familia guztiaren partez!



• Zorionak, **Uxue**, martxoaren 19an urtebete egin zenuelako. Aita, ama eta ahizpa Iratiren partez.



• Zorionak, **Julen**, astelehenean 7 urte beteko dituzulako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Julen!** Azkenean iritsi da 6 urteak ospatzeko eguna! Patxo bat etxekoen, eta bereziki Naia-aren partez!



• Zorionak, **Unax**, gaur 5 urte! Ondo-ondo pasa zure egunean. Muxu mordoia familiakoen, eta batez ere Enararen partez.



• Zorionak, **Nahia**, astelehenean 3 urte beteko dituzulako. Muxu potolo bat etxeko guztien partez, eta bereziki, Malenen partez.



• Zorionak, **Gorka eta amatxo Kristina**, martitzenean urteak beteko dituzulako. Pepiren partez.



• Zorionak, **amatxo eta Maddi**, astelehenean eta martitzenean urteak beteko dituzuelako. Erika eta aitaxoren partez.



• Zorionak, **izeba Miren eta osaba Patxi**, 25 urte elkarrekin egin dituzuelako. Mikel eta Oihaneren partez.



• Zorionak, **Igor eta Haritz**, gaur urteak bete dituzuelako. Segi horrela zahartzen.

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OKINDEGIA

28 domeka **BOLINTXO**
 1 eguena **EIZAGIRRE**
 2 barixakua **FOTERO**
 3 zapatua **IBARRENEA**
 4 domeka **BOLINTXO**
 5 astelehena **EIZAGIRRE**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

26 Ibañez	2 Zabaleta
27 Garitaonandia	3 Etxeberria (S.A.)
28 Garitaonandia	4 Etxeberria (S.A.)
29 Etxeberria (S.A.)	5 Etxeberria (S.A.)
30 Fernandez	6 Etxeberria (S.A.)
31 Yudego	7 Zabaleta
1 Zabaleta	8 Yudego

Ibañez
 Rekalde, 1 (SORALUZE)
 Tel: 943 751 638

Fernandez
 Herriko enparantza 4,
 Garagarza (MENDARO)
 Tel: 943 756 142

Zabaleta
 Kalebarren, 9 (SORALUZE)
 Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik
www.elgoiBARREN.net

26 barixakua

Musika

19:00 Kale kantarien entsegua
 Zapatuko ferian kantatzeko entsegua, Kultur Etxeko sotoan.

Manifestazioa

20:00 Juan Mari Mendizabalen aldeko manifestazioa
 Elgoibartarra gose greban dago, eta haren aldeko ekitaldia izango da. Plaza Handian.

27 zapatua

Azken zapatuko feria salmenta

9:00 Baserriko produktuen salmenta
 Txillarre, Lizundia Txabola, Zabaleta, Arrasketa eta Eguen Txiki baserriko produktuak.

11:50 Kale kantariak
 Nafarroa Plazatik irtengo dira.
Eguerdian Babarrun dastaketa
 CD Elgoibarrek prestatutako babarrun dastatzea, 2 eurotan. Nafarroa Plazan.

Arratsaldean ganadu eta baserriko tresneria salmenta
 Ganadu erakusketa eta tresneria salmenta, Plaza Txikian. Horrez gain, Eusko Label kalitateko lumagorri oilaskoak eta abelgorrien saihetsak, txorizoa eta odolkia dastatzeko aukera izango da.

Jaia

20:30 Sagardotegia Gaztetxean
 Afaria izango da, 12 eurotan, Gaztetxean.

28 domeka

Jaia

10:00 Boliviaren jaia
 Sua hartu zuen etxean bizi zen familiaren aldeko jaia egingo dute Ermuaran-Sallobente auzoan.

29 astelehena

Tailerra

18:00 Literatur tailerra
 Haizea emakume taldeak

antolatuta, *La casa de Bernarda Alba* liburua aztertuko dute, Udal Liburutegian.

30 martitzena

Tailerra

17:00 Arte tailerra
 Haizeak antolatuta, *Los fusilamientos de la Moncloa* lana aztertuko dute, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Hitzaldia

19:30 Aintzane Ezenaroren hitzaldia
 Aralarren bozeramaileak hitzaldia eskainiko du, Kultur Etxeko sotoan.

Hitzaldia

20:00 'Nahi duzun bizimodua'
 Zeure buruarekin eta munduarekin komunikatzen ikasteko hitzaldia, Kemen Belardendan. Apirilaren 1ean eta 2an, 10etik 14ra, eta 16an tailerra eskainiko dute.

ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

ORDU ALDAKETA EGIN BEHARKO DA MARTXOAREN 28AN, HAU DA, ZAPATUTIK DOMEKARAKO GAUEAN. ORDULARIAK ORDUBETE AURRE-RATU BEHAR DIRA, ETA GOIZEKO 2:00ETAN 3:00AK IZANGO DIRA.



«Nine»

26, barixakua: 22:15
 27, zapatua:
 19:00/22:15
 28, domeka: 19:00
 29, astelehena: 21:30

«Rompedientes»

28, domeka: 16:30

«Invictus»

2, barixakua:
 19:00/22:15
 3, zapatua: 19:00

«Un hombre soltero»

3, zapatua: 22:15
 4, domeka: 19:00
 5, astelehena: 21:30

«Arthur y la venganza de Maltazard»

4, domeka: 16:30



ASTE SANTUKO MEZAK eta ELIZKIZUNAK

	Hilak 28 Erramo Domeka	Hilak 29 Astel lehena	Hilak 30 Martitzena	Hilak 1 Eguen Santua	Hilak 2 Barixaku Santua	Hilak 3 Pazko gaubela	Hilak 4 Pazko Domeka
PARROKIA	11:30 Prozesioa, erramuen bedeinkazioa eta meza	19:00 Adiskidetze ospakizunak (euskaraz)	19:00 Adiskidetze ospakizunak (gaztelaniaz)	10:00 -12:00 Banakako penitentzia 19:00 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurrean otoitza	18:00 Jesusen heriotza oroitzeko elizkizuna.	21:00 Pazko gaubela	11:30 Prozesioa eta meza
SANTA KLARA	10:00 Erramuen bedeinkazioa eta meza			17:00 Azken afariko ospakizuna 21:30 Jaunaren aurrean otoitza	9:00 Irakurgaien ordua 11:30 Gurutzbidea 17:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna	21:30 Pazko gaubela	10:00 Meza
MADALA	8:30 Erramuen bedeinkazioa eta meza				10:30 Gurutz bidea		8:30 Meza
SAN LORENTZO	10:30 Erramuen bedeinkazioa eta meza						10:30 Meza
SAN ANTOLIN	11:30 Bedeinkazioa eta hitzaren liturgia.						11:30 Hitzaren liturgia
SAN PEDRO	10:30 Bedeinkazioa eta hitzaren liturgia.						10:30 Hitzaren liturgia
SAN MIGEL	11:30 Bedeinkazioa eta hitzaren liturgia.						11:30 Hitzaren liturgia
MENDARO			16:00 Aitortza komunitarioa (Azpilgoetan) 21:00 Aitortza komunitarioa (Garagartzan)	19:00 Meza (Garagartzan)	10:00 Gurutzbidea (Garagartzatik Santa Kruzera) 17:00 Meza Jesusen heriotza oroitzeko elizkizuna (Azpilgoetan)	18:30 Meza (Azpilgoetan)	9:00 Meza (Azpilgoetan) 11:00 Meza (Azpilgoetan) 12:00 Meza (Garagartzan)
ALTZOLA				20:00 Meza	18:00 Meza		10:00 Meza

Erretratu zaharra



1969

Aste honetako erretratu zaharra Gemma Jaiok ekarri du BARREnera. 1969ko Gabonetan ateratako argazkia da. Herriko ikastetxeen artean kanta lehiaketa egiten zen. Ikastolako ikasleek Ubitarte Zentroan egin zuten, parrokoak aukeratutako ikasleekin, eta bertan atera zuten erretratua. **Goian, ezkerretik eskumara:** Miren Esnaola, Mari Juli Arregi, Lorea Iriondo, Arrate Argarate eta Itziar Ajuria. **Behean:** Amaia Gorosabel, Agurtzane Epelde, Agurtzane Garcia eta Gemma Jaiok.

Gure berbak **Hiztegixa: interjekzio batzuk**

- ◆ **KAIXO!**: Agurra. **Kaixoi!** ere bai.
- ◆ **KARO!**: Horixe, jakina. Ikus **Klaro!**
- ◆ **KE APROBETXE!**: **On eñ** eta **On ein dizu(e)la** bezala erabiltzen da.
- ◆ **KEBA!**: Aurretik esan dena ukatzeko erabiltzen den interjekzioa. Ez horixe-ren kidekoa. *–Neskiari lagundu, eta buelta atzera. –Oñ holakorik ezta eitzen mutil batek! –Keba, keba! / –Oporretara kanpora jute zerate? –Keba!*
- ◆ **KITTO!**: Gauza bati amaiera emateko erabiltzen den interjekzioa: *...eta kittol: Eta a(r)j dittuk pixkat ihartzen, eta ihartze'ianian, danak jaurtiko jaittuat, eta kitto!*
- ◆ **KLARO!**: Noski. *–Hola ikasi dozue zuek eta... –Bai, ba, klaro, guk hola ikusi dou ta, ikasi dou ta, ba holaxe. / –Guri tokau jaku ikastia, aukeria eukitzia. –Klaro, hori diperente da. Oingo gaztien bizimodua eta lehenguen diperentia da. Karo aldaera ere bai. Perpaus osagarria ere goberna dezake: Klaro ibiltze gerala.*
- ◆ **KOMAI DIOS!**: Erabakimena adierazten du. *Komaidios oin-guan nik irabaziko dizutela partidua!*
- ◆ **KOPLARIK EZ!**: Ipuinik ez. **Koplekin ez etorri!**: Gezurrekin, ahoberokeriekin ez etorri!

- ◆ **LARRI IBILI!**: Aurretik esan dena berresteko erabiltzen da. *–Aurten ere negua hotza dator. –Larri ibili!*
- ◆ **LEKUTAN EGON!**: Urruti egon, espazioan edo denboran. Enfatikoa. *Lekutan jaok agostua! Ahiztu juat ya! / Eske, pentsau, Melillaraño jun ein biha da, e! Lekutan dao haura!*
- ◆ **MAJO!**: Ondo, ondotoxo. Interjekzio moduan askotan: *Majo bi zi haiz, gero, e! / Majo dabil gizona, andrian kontura!*
- ◆ **MARKIA IZANI!**: Ezustekoa edo harridura adierazteko erabiltzen da. **Hau dok markia, hau!**: Hau bai ona! Hau duk ona! *Hau dok, hau, markia! Dirua euki eta gastatzeko astirik ez!*
- ◆ **MEKATXIS!**: Birao eufemistikoa. **Mekatxis la mar!** Umeekin eta erabiltzen da.
- ◆ **MEKAUEN!**: Biraoa. **Mekaben** aldaera ere bai. **Mekatxis** baino birao gogorragoa. **Mekauen la letxe! Mekauen zotz! Mekauen diez!**
- ◆ **MOTELL(AK)!**: Mutil, balio bokatiboa duena. *Motellak! Hori dok ganoria, hori!* Ikus **Mutillak!** sarrera.
- ◆ **MUTILLAK!**: Harridura adierazteko erabiltzen da. *Mutillak! Hori da patxadia daukazuena! / Mutillak! Zetan zabizie? / Mutillak! Esan eta esan, eta ezin asmau zuekiñ! Motellak!* ere bai.

Jesus Mari Makazaga

KANTABRIA Jatetxea

Arrate Gaina, 4
279 Postakutxa
20600 EIBAR
943 121 262
943 127 334



*Edozein
ospakizunetarako
aukera*



www.kantabriajatetxea.com

**EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK**

ARRATEKO
SANTUTEGIAREN
ondoan aurkitzen gara

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak,
zilarrezko ezkontzak, urrezko ezkontzak,
karta, enpresa bazkariak...

RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA. JATETXEA



LASATA JAUREGIA



*250 LAGUNEN DAKO
JANGELA*

*ERA GUZTIETAKO BANKETEA
ospatzeko toki bikain batean*

**'MAS GASTRONOMIA 2009' SARIA,
BANKETEETARAKO GIPUZKOAKO
JATETXE ONENARI**

